

ARG!

Argazki Festibala '15



ARG! 2015
Argazki Festibala

ARG! Argazki Festibala, bi urtean behineko maiztasuneko izaera duen jaialdia, badator berriz ere gurera. Udaberrian loratuko da, apirilaren 12an hasi eta maiatzaren 3ra arte luzatuko den epe mugan, argazkilaritzaz gozatzeko hainbat ekimen eskeiniz. Horixe baita festibal honen helburu nagusia: argazkilaritzaz gozatzea!

Argazkilaritza eskeintzeko ohiko formatuez gain, espazio eta formatu ezberdinak proposatzen ditugu argazkilaritza kontsumitzeko. Lau argazki erakusketa, bi argazkigintza tailer, bi bideo proiektzio, BookJockey saio bat, hitzaldi-proiektzio bat, zine kluba eta estenopeika erraldoi bat egiteko asmoa daude ARG!-en 2.en edizioaren barruan.

Argazkilaritza maite duenarentzat proposamen eztiz beteriko egutegia aurkezten dugu Oñatiko Ilunpetan Argazki Taldeak, eta guzti honetaz goza dezazun ARG! Argazki Festibalean parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Jarraian, ARG! 2015-eko egutegia eta jardueren deskribapena aurkituko dituzue. Irakurriko duzuen guzti horretan gustukorik aurkituko duzuelakoan, eta apirilean zehar Oñatin elkartuko garelakoan...

mila esker!

ARGI 2015
ARGAZKI FESTIBALA

APIRILA

6	7	8	9	10	11	12
						GEMA ARRUGAETA_Arantzazu n. inaugurazioa 13tan
13	14	15	16	17	18	19
		ISPILUAK + ARGIZAIOLA_inaugurazioa	HYSTERON_inaugurazioa Kultur Etxean, 18.30tan + pintxo pote	BIDEAN_inaugurazioa Gaztetxean, 19.00tan PROIEKZIOAK_Gaztetxian 19.30tan	ARGAZKIGINTZA ESTENOPEIKA TAILERRA_Gaztelekuan 10-14/16-20	ARGAZKIGINTZA ESTENOPEIKA TAILERRA_Gaztelekuan 10-14 ESTENOPEIKA ERRALDOIA_Udaletxean 12-14/(17-19)
20	21	22	23	24	25	26
			ZINE KLUBA_Kultur Etxean 20tan	INGE MORAT TRUCK_Hitzaldi- Proiektzioa 19.30tan BOOKJOCKEY_Plazako kioskoan 22tan	"LA MIRADA DOCUMENTAL" TAILERRA_Eltzian 10-14/16-20	"LA MIRADA DOCUMENTAL" TAILERRA_Eltzian 10-14
27	28	29	30	1	2	3
						FESTIBALAREN ITXIERA Erakusketak ikusteko azken eguna

GEMA ARRUGAETA “IZADIAZ-GIZAKIAZ”_ARANTZAZUN Apirilaren 12tik Maiatzaren 3ra



Gema Arrugaeta, Mediterraneoko transhumantziaren gaineko erakusketa kolektiboaren barruan, Espainiako transhumantziari dagokion argazki erreportajearen egilea da. “EN MOVIMIENTO” (ON THE MOVE) izeneko erakusketa ibiltari hau, Suitzan komisionatutakoa da eta duela gutxi arte Madrilen (Espainia) ikusgai egon da. Aipaturiko erakusketa horiez gain, dagoeneko Paris (Frantzia), Ginebra (Suitza), Tunez (Tunez), Beirut (Libano) bisitatu ditu eta laster Atenasen (Grecia) ikusgai egongo da.

Arantzazun “IZADIAZ / GIZAKIAZ” izeneko bere erakusketa propioa aurkeztuko digu, formatu handiko 25 argazkiz osaturiko erakusketa izango dena. Bertan transhumantziaren erlazioa eta naturarekiko bat-egitea lantzen dira, argien eta koloreen joko estetiko baten baitan.

Gema Arrugaeta, naturan, bidaietan eta landa-eremuan espezializatutako argazkilari profesionala da. Bere ibilbide profesionalean zehar, hainbat erakunde desberdinekin, agentziekin eta aldizkari espezializatuekin lankidetzan jardun du.

Halaber hainbat irudi- libururen egilea ere bada, baita beste zenbait dokumentalen egilea ere; TVE-ko “Al Filo de lo Imposible” saioan argazkilari gisa lankidetzak ere egin izan ditu.

Gaur egun, munduko txoko ugarritan egindako, 160.000 argazkitik gora dituen argazki artxibo propioa kudeatzen du.

<http://www.gema-arrugaeta.com>

“BIDEAN”. MIREN PASTOR_GAZTETXEAN Apirilaren 17etik Maiatzaren 3ra



Bizitza osoan zehar errepikatzen zaizkigun arren, gaztaroan bortitzago nabaritzen ditugu aldaketa prozesuak, naturaren ziklo ezegonkorak bezala. Aldaketa horien islada aztertzean datza zabalik dagoen proiektu hau.

MIREN PASTOR (1985, Iruña/Lekeitio)

Argazkilaria eta kultur dinamizatzailea. Arte Ederretan lizentziatua, Cristina Iglesias, Daniel Canogar, Roberto Coromina edo Christian Patterson bezalako artisten laguntzaile bezala lan egin du. Gaur egun sorkuntzako proiektu pertsonalak, Madrileko Blank Paper argazki eskolako koordinazioarekin eta MOB, kultura sareetan sustatzeko plataformarekin, uztartzen ditu.

“BIDEAN”. MIREN PASTOR_En el Gaztetxe, del 17 de abril al 3 de mayo

Este trabajo fotográfico explora en los procesos de cambio en la adolescencia y la transformación del entorno. Cambios que se manifiestan de manera más cruda en la adolescencia pero que se van repitiendo a lo largo de la vida como los propios ciclos inestables de la naturaleza.

MIREN PASTOR (1985, Iruña/Lekeitio)

Fotógrafa y dinamizadora cultural. Licenciada en Bellas Artes, ha sido asistente de artistas como Cristina Iglesias, Daniel Canogar, Roberto Coromina o Christian Patterson. Actualmente compagina sus proyectos personales de creación fotográfica con la coordinación de Blank Paper Escuela de Fotografía y la plataforma para fomentar la cultura en redes, MOB.

<http://www.mirenpastor.com/>

“ARGIZAIOLA 2013”_TXANDA ELKARTEAREN ESKAPARATEETAN Apirilaren 15etik Maiatzaren 3ra



Hirurogeita hamarreko hamarkada erdialdean, argazkizetasuna batzeko joerak indar dezente zuten Euskal Herrian, eta informazioa eta esperientzia trukatzearen poderioz, harremanak sendotzen hasi ziren elkarte ezberdinak. 1973an, ARGIZAIOLA SARIA sortu zuten eta horren ondorioz, EUSKAL HERRIKO ARGAZKILARI TALDEEN FEDERAKUNTZA sortu zen.

Zenbait lehiaketetan sarituak izan diren argazkilariek bakarrik parte hartu ahal dute lehiaketa esanguratsu honetan, eta erakusketa ibiltari honek lehiaketa horretara aurkeztutako lanak biltzen ditu.

“ARGIZAIOLA 2013”_EN LOS ESCAPARATES DE LAS TIENDAS DEL PUEBLO desde el 15 de Abril al 3 de Mayo

A mediados de los setenta la tendencia a unir la afición por la fotografía tenía mucha fuerza en el País Vasco, y a consecuencia de compartir la información y la experiencia, diferentes sociedades empezaron a fortalecer las relaciones. En 1973, crearon EL PREMIO ARGIZAIOLA y a consecuencia de ello, se creó LA FEDERACIÓN DE LOS GRUPOS DE FOTOGRAFÍA DEL PAÍS VASCO.

Solamente pueden participar en este concurso significativo, los fotógrafos que han sido premiados en ciertos concursos y esta exposición itinerante reúne los trabajos presentados a esa competición.

"ISPILUAK". ILUNPETAN ARGAZKI TALDEA_SANCTI SPIRITUS UNIBERTSITATEKO KLAUSTROAN Apirilaren 15etik Maiatzaren 3ra



ooaa456

Argazkiak oroimenerako erabiltzen dira, instantea izoztu eta iraunkor bihurtzen dira. Denborak uzten dituen aztarnak antzematen ditugu gerora. Erakusketa honetan Oñatiko lehen eta oraingo argazkiak elkarren ondoan ikus ditzakegu.

Argazki zaharrak Oñatiko Udal Artxiboak utzitakoak dira. Eta gaur egungo argazkiak egiten Ilunpetan Argazki Taldeko partaide batzuk aritu dira..



"ISPILUAK". ILUNPETAN ARGAZKI TALDEA_EN EL CLAUSTRO DE LA UNIVERSIDAD SANCTI SPIRITUS desde el 15 de Abril al 3 de Mayo

Las fotografías se utilizan para el recuerdo, hielan el instante y se vuelven duraderas. Notamos los vestigios que deja el paso del tiempo cuando las observamos pasado un tiempo. En esta exposición podemos ver las fotografías antiguas y las actuales de Oñati, el uno al lado del otro.

Las fotografías antiguas nos la ha dejado el Archivo Municipal de Oñati. Y las fotografías de hoy en día, las han realizado algunos participantes del Grupo de Fotografía Ilunpetan.

“HYSTERON”. NAGORE LEGARRETA _KULTUR ETXEAN Apirilaren 16tik Maiatzaren 3ra



Hysteron argazki bilduma bat da, antzinako teknika primitiboak erabilia sortu den proiektua. Argazkietan emakume gorputz zatikatuak irudikatzen dira; elkarrekin harremanetan dauden emakumeak irudikatzen dira: tentsioan, elkarri bultzatzen egiten diote batzuetan, eta bestetan, batu egiten dira.

Giza harremanen inguruko gogoeta da Hysteron, norberaren espazio pertsonala eta gainerako gizakien espazio pertsonalaren arteko tentsioaren inguruko gogoeta. Bizi dugun gizarte posindustrializatu honetan, pertsonok gure buruari eta ondokoari ematen diogun tratua inguruko hausnarketa da, genero ikuspuntutik abiatuta.

Proiektu honen berezitasuna da, argazkilariak berak eraikitako kamarekin sortu direla irudiak. Kamaretako bat, bost kiloko bonito lata batekin eraiki da, eta bestea, lapiko batekin. Argazki kamara hauek bereziki proiektu honetarako eraiki dira. Emakumeen gorputzen artean sortu diren fusioak kamarari lau zulo eginda sortu dira.

NAGORE LEGARRETA “HYSTERON”_EN LA CASA DE CULTURA desde el 16 de Abril al 3 de Mayo

Hysteron es una colección de fotografía; proyecto que se ha creado utilizando las técnicas primitivas de fotografía. En las fotografías se representan los cuerpos de mujer troceados; se representan las mujeres que se relacionan entre sí: en tensión, a veces se empujan, y en otras, se unen.

Hysteron es el pensamiento sobre las relaciones humanas, el pensamiento de alrededor del espacio personal de cada uno y la tensión entre el espacio personal de los demás seres humanos. Es la reflexión sobre el trato que solemos darnos, a nosotros mismos y a los que nos rodean, en esta sociedad postindustrializada que vivimos, partiendo desde la perspectiva de género.

La particularidad de este proyecto es, que las imágenes se han creado con cámaras fotográficas construidas por la propia fotógrafa. Una de las cámaras se ha construido con una lata bonito de cinco kilos, y la otra, con un puchero. Estas cámaras fotográficas se han construido especialmente para este proyecto. Las fusiones que se han creado entre los cuerpos de las mujeres se han creado haciendo cuatro agujeros a la cámara.

ARGAZKIGINTZA ESTENOPEIKOA_NAGORE LEGARRETAren eskutik. Gaztelekuan. Apirilak 18-19 (euskaraz)



Edozein ontzi erabilia argazki kamara eraiki daiteke, kamara estenopeiko bat. Kamarari zulo bat egin eta paper fotografikoa barruan sartu, teknika oso oinarrizkoa da. Bitxikeri teknikoaz haratago, ontziekin eraikitako kamarek eskaintzen dituzten irudiak, testurak, estetikak gauzak adierazi eta kontatzeko bide egokiak izan daitezke. Kamera atzean duen begiradak medio honekin konektatzea da gakoa. 12 orduko tailer honetan ontzi batekin kamara egiten, argazkiak egiten eta emaitzak errebelatzen irakatsiko da.

NAGORE LEGARRETA (Hernani, 1981). Argazkilaria, teknika estenopeikoarekin egoskortu zen 2009an Alberto Gagorekin egin zuen tailer batean. Orduz geroztik teknika honekin esperimentatzen eta adierazi nahi zituenak zehazten igaro ditu egunak. 2011an Edipotoa izeneko bere lehen argazki liburua argitaratu zuen Bilboko Banizu Nizuke argitaletxeak. Azken urteetan Hysteron izeneko bere azken proiektua lantzen ibili da. Bere proiektuak garatzea argazkilaritza irakasle lanarekin uztartzen du.

<http://www.nagorelegarreta.com/>

Izen ematea: ilunpetan@gmail.com

605753966

Prezioa: 50€

“BEGIRADA DOKUMENTALA” Argazki Tailerra_LURDES BASOLÍren eskutik. Eltzian (ETEO eraikin zaharra). Apirilak 25-26 (gazteleraz)



Argazkigintza dokumentalak eboluzionatu egin du, eta istorioak distantzia batekin eta objektibotasun kutsu batekin kontatzeko modua, beharbada, zaharkituta geratu da. Hori horrela izanda, zer ekarpen egin diezaiekegu gure argazkiei, gaur egun? Gure subjektibotasuna, munduaren gaineko berezko begirada. Sinplea eta konplexua aldi berean, baina beti liluragarria; ardatz honen inguruan lan egingo dugu tailer honetan, eta norbanakoaren lanean sakondu nahi duten, eta beraien argazkiei nortasun kutsu bat eman nahi dien argazkilari, erreportari eta dokumentalistentzat bideratuta egongo da.

Gure ikuspuntu fotografikoa garatzeko, argazkigintza dokumentalean ezinbestekoak diren egileen analisi dinamikotik abiatuta sortuko diren galdera bisual asko egin behar izango dugu, egile klasikoengan enfasi berezia jarritz.

LURDES BASOLÍ. Bartzelona, 1981

Ikus-Entzunezko Komunikazioan lizentziaduna Ramon Llull Unibertsitatean, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Fotoperiodismoan graduondokoa duena. Gazte katalan honek nazioarte mailan aitortutako argazkilari ibilbide garrantzitsua garatu du.

Nazioko eta nazioarteko erakusketak egin ditu, eta beka eta sari prestigiotsuak jaso ditu, FotoPres'09-a esaterako, (bere proiektu aitortuena burutzeko, 'La Sucursal del Cielo', Caracaseko hiri-bortizkeriaren inguruko lana) edo Ani Pixpalace, Visa Pour l'Image 2011-a. Inge Morath Award-a (2010) lortu duen espainiar bakarra da, urtero Magnum agentziak, emakume fotodokumentalista batentzako

ematen duen saria. 2010ean Joop Swart Masterclass-eko World Press Photo-an parte hartzeko aukeratua ere izan zen. 2014an La Fabrika-k argitaratu zuen XIX. mendetik- XXI. mendera arteko Argazkilari Espainiarren hiztegian sartu zen

Espainiako eta nazioarteko argitalpenetan parte- hartu du: El País Semanal, La Vanguardia Magazine, El Mundo Magazine, El Dominical de El Periódico, Cambio 16, Interviú, The Sunday Times Magazine, Expresso, Internazionale, La Nación, El Universal, etab.

Tailerrean izena emateko: ilunpetan@gmail.com
605753966

Prezioa: 50€

ARGAZKI LANEN BIDEO PROIEKZIOAK_GAZTETXEAN. Apirilaren 17an, 19.30tan.



BlankPaper

Bilboko Argazkilaritza Garaikideko Zentroko ikasleen eta Madrileko BlankPaper eskolako ikasleen argazki lanak ezagutu ahalko ditugu emanaldi honetan. Argazkiak ikusentzunezko formatuan aurkezten zaizkigu; bi proiektzio eskeiniko dira, eskola bakoitzeko bana; eta ordu erdi inguruko iraupena izango du proiektzio bakoitzak.

VÍDEO PROYECCIONES DE LOS TRABAJOS DE FOTOGRAFÍA _EN EL GAZTETXE. El 17 de abril, a las 19. 30.

En esta emisión podremos conocer los trabajos de fotografía de los estudiantes del Centro de Fotografía Contemporánea de Bilbao y de los estudiantes de la escuela de Madrid BlankPaper. Las fotografías se nos presentan en el formato audiovisual; se ofrecerán dos proyecciones, sendas de cada escuela; y cada proyección tendrá la duración de alrededor de media hora.

ZINE KLUBA “Mil Veces buenas noches” filma_KULTUR ETXEKO ZINE ARETOAN Apirilaren 23an, 20tan.



Oñatiko Zine Klubarekin elkarlanean, “Mil veces buenas noches” filma proiektatuko da Kultur Etxeko aretoan.

SINOPSIS:

Rebecca munduko gerra argazkilaria onenatariko bat da. Kabulen larriki zauritu ondoren bere etxera itzultzerakoan, ekaitz emozional izugarriari aurre egin behar izango dio, bere senarrak, daraman bizitza arriskutsua jasaten jarraitzeari uko egiten dioenean. Bai senarrak, bai bere bi alabek Rebecca behar dute eta ultimatuma ematen diote: bere lana edo bere familiaren artean egin beharko du aukeraketa... Hautuak begien bistakoa dirudi.

CINE CLUB, “Mil veces buenas noches”_en la sala de cine de la casa de cultura. 23 de abril, 20.00h.

Colaborando con el CineClub, se proyectara la película “Mil veces buenas noches” en la sala de cine de la casa de cultura.

SINOPSIS:

Rebecca es una de las mejores fotógrafas de guerra del mundo. Al regresar a su casa tras ser herida gravemente en Kabul, debe enfrentarse a una tremenda tormenta emocional cuando su marido rehúsa seguir soportando la peligrosa vida que lleva. Tanto él como sus dos hijas necesitan a Rebecca y le dan un ultimátum: su trabajo o su familia...La elección parece obvia.

“DANUBE REVISITED: THE INGE MORAT TRUCK PROJECT” HITZALDI-PROIEKZIOA_KULTUR ETXEAN. Apirilaren 24an 19.30tan



gehiengoa road-tripean, tradizioz gizonezkoekin lotutako argazkilaritza generoa izan denean; eta dinamika horizontalak proiektuaren kudeaketan, zuzendaritzan eta errealizazioan.

2014ko udan zortzi argazkilarik Danubio zeharkatu zuten, Alemaniako iturritik hasi eta, Errumaniako bere deltaraino, road-trip kolektibo batean. Emakume-taldeak galeria ibiltari bihurtutako kamioi bati laguntzen zion. Inge Morath-en, Magnum agentziako fotoperiodista aitzindari baten, Danubioko zuri-beltzeko argazkiak zeuzkana.

Hizketaldi-proiektioan Lurdes R. Basolí-k, argazkilarietako batek, lehen pertsona eta ikuspuntu kritiko batetatik kontatuko dizkigu esperientzia honetako bizipenak. Arreta berezia jarritz, proiektuan arrakasta handiarekin gauzatu ziren prozesu fotografiko haueetan: kolektiboa eta ekintza fotografikoaren izaera indibidualistaren arteko borroka; argazkilaritza lan bat jatorrizko komunitatera itzultzea, formatu herrikoi eta berritzaile batean; amatasuna eta road-triparen arteko bateragarritasuna; irekita egotea eta bertako argazkilariekin elkarrizketak izatea, rol paternalista tradizionalen aurrean; iraganaren eta orainaldiaren arteko zubiak eraikitzeko espazio baten sorrera; emakumezkoen

Azkenik, laburki bada ere, proiektuaren etorkizunaz hitz egingo da, izan ere, bertako komisarioa oraintsu izendatu dute road-triparen emaitzaren erakusketan lan egiteko. Telefónica Fundazioa espazioan gauzatuko da 2016ko ekainean.

ESTENOPEIKA ERRALDOIA_UDALETXEAN. Apirilaren 19an, 12.00tatik 14.00tara



Argazkigintza teknika ororen oinarrietara itzuli nahi dugu. Eta herritarrei argazki kamera baten barruan zer gertatzen den bertatik bertara erakutsi. Horretarako, udaletxeko pleno aretoa “argazki kamera” erraldoi batean bihurtuko dugu. Eta bere barruan sarturik, argazki bat egiterako zer behar den ikusiko du bertaratzen denak.

Abisua: eguraldi ona egin behar du ekimen hau egin ahal izateko. Eguraldi txarra egingo balu, oso lainotuta balego edo euria ariko balu, ekimen hau bertan behera utziko genuke.

ESTENOPEICA GIGANTE_AYUNTAMIENTO. 19 de abril, de 12.00 a 14.00h

Queremos volver a las bases de todas las técnicas de fotografía. Y mostrar a todos los habitantes lo que ocurre dentro de una cámara fotográfica. Para ello, la sala de plenos del ayuntamiento se convertirá en una gigante “cámara de fotografía”. Y entrando dentro de él, el que se acerque a esta iniciativa, verá qué es lo que se necesita para hacer una fotografía.

Aviso: tiene que hacer buen tiempo para poder hacer esta iniciativa. Si hiciera mal tiempo, si estuviera muy nublado o si lloviera, abandonaríamos esta iniciativa.

BOOKJOCKEY. MIREN PASTOR_PLAZAKO KIOSKOAN Apirilaren 24an, 22.00tan



BookJockey saio bat DJ saio baten antzekoa da, baina musikaren ordez argazki liburuak dira protagonistak. Liburuak erakutsi eta nahastu heinean “historio” berri bat sortzen da, ikusleak argazki liburuak sentitzera eta saioarekin gozatzera gonbidatuz.

Inguratzen gaituen errealitatea adierazteko interpretazio ezberdinen haritik, nire krazio prozesuan berebiziko garrantzia izan duten argazki liburuen orrialdeetatik aurrera ta atzera jausika ibiliko naiz. Hizkuntza unibertsala duten proiektuetatik abiatuz, beraien lana nazio oso bateko sinbolo bilakatu duten argazkilari ezagunak, zein errealitatea hurbilgotik aztertzen duten argazkilari garaikideak azalduko dira. Kontzeptu orokorretatik xehetasunera hurbilduz, gizartearekiko egileen kezka eta inplikazioa aztertuz, 12 argazki liburu oso berezi hauetatik ibilibidetxo bat izango da saio hau.

Argazki liburuak ezagutu eta beraiekin gozatzeko formatu experimental honen ondoren, nire lehenengo argitalpen proiektuaren bigarren alea aurkeztuko dut: Bidean II. Gaztetasunean bortitzago nabaritzen ditugun arren aldaketak prozesuak, bizitza osoan zehar errepikatzen zaizkigu, naturaren ziklo ezegonkorak bezala, eta aldaketa horien islada aztertzean datza zabalik dagoen proiektu hau.



Antolatzailea



Argazki taldea

Laguntzaileak



Oñatiko Udala

arantzazuGaur
fundación arantzazu gaur fundazioa

Kolaboratzaileak



BlankPaper



Sancti Spiritus Unibertsitatea

Oñatiko ZineKluba